

Arnasa berria

Euskaldunon Egunkaria, 1996-06-30: 3.

Elkarrizketak modan daude gaur, baina ez arrakastatsu direlako, alderantziz baizik. Honetxegatik daude hain zabalduak juduak, irlandarrak eta gerauek ere aurrera eraman ezin ditugunak (balorazioak kanpo, noski). Errazak diren elkarrizketak egiten dira, eta ez dira hainbeste aldarrikatzen. Arnasa berriak ere sarri aipatzen dira, seinale porrot egin zuten zaharrak izan zituztela. Zergatik gizagatazka hain zaila eta minkorra? Bada gizatiarra berez delako konplexu, eta bere interesak ugari eta oso sentiberak. Orain garaikoa aipatzeko, ETAk eta Ajuria Eneko Mahaiaren artean sortutakoak aurretik zeuden iragarriak. Askotan aipatzen den zirkuluaren koadratura ezina da, noski, baina nabaritasun hau ez da justifikagarri, lasaikeriaren lorpena errazegia litzateke honetan geratzea. Argi dagoena da biek beretik amore eman behar dutela, karratuak dituen izkina biziak hain erasokorrak izan ez daitezen eta zirkuluak kurba iheskorra ez hain itzurti. Lorpen hau posible dela judu eta palestinar zentzudunek ongi probatu zuten, zeren eta azken finean Yitzahk Rabinen hilketak arrakasta honen gurutzeta baita; irlandarren itzaropena ez da oraindik galdu, eta agian euskaldunon arnasa berria ere ez. Alafede.